



PISA 2022 Datuen babesa

Zer da PISA?

PISA ingelesezko siglak dira *“Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Programa”*¹, ELGAK babestutako hezkuntza-ikerketako azterketa. Espainian Hezkuntza eta Lanbide Heziketaren Ministerioko INEE da PISA Zentro Nazionala. 15-16 urteko ikasleek beren ezagutza, trebetasunak eta jarrerak egoera errealean aplikatzeko duten gaitasuna neurtzen du PISAk. PISAren datuak herrialde parte-hartzaile bakoitzeko hezkuntza-sistemak behatu eta ebaluatzeko, konparatzeko eta sistema bakoitzaren ahulguneak eta indarguneak ulertzen saiatzeko erabiltzen dira.

Zer egin beharko dute ikasleek?

Ikasleei eskatzen zaie bi orduko proba bat eta testuinguruari buruzko galdera-sorta bat egiteko. Probak barne hartzen du irakurketa, matematika, zientzia, Finantzarako konpetentzia eta pentsamendu sortzailea, azken hori lehen aldiz Pisan. Ikasleen familia- eta eskola-inguruneari, ongizate fisiko eta emozionalari eta matematikan dituzten jarrera eta interesei buruzko informazioa biltzen du galdera-sortak (2022ko edizio honetan). Aitaren eta amaren heziketaz eta lanaz ere galdetzen zaie

Ez da proba hau prestatu behar; ikasleek behar adina informazio izango dute proba egin ahal izateko, aldez aurreko praktika-moduluak barne, probara ohitzeko. Formatua digitala da. Aukera anitzeko galderak eta galdera irekiak sartzen dira, eta horien erantzunak idatzi beharko dira. Bizitza errealeko egoera bat deskribatzen duten testuetan eta irudietan oinarritutako unitateetan antolatuta daude galderak.

Nola erabiltzen dira datuak?

PISAk ikasleek derrigorrezko hezkuntza-eta amaitzean lortu dituzten konpetentziak (ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak) islatzen ditu.

Proba digitalari emandako erantzunak atazen arteko nabigazio-gaitasuna barne, testuinguruari buruzko galdera-sortetan emandako informazioarekin konbinatzean, ikertzaileek eta hezkuntza-agintariek oinarri handiagoa izango dute ikaskuntzaren desberdintasunak hobeto ulertzeko, datuetan oinarritutako erabakiak hartzeko eta hezkuntza hobetzeko beharrezko neurriak hartzeko. PISAren argitalpenen adibideak hemen aurki daitezke:

<https://isei-ivei.hezkuntza.net/eu/pisa>

<https://www.educacionyfp.gob.es/inee/evaluaciones-internacionales/pisa.html>

¹ Hezkuntza-ebaluazioetan ikastetxeek duten parte-hartzea artikulua hauen bidez arautzen da: 91.k, 132.h eta 142 Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko 8/2013 Lege Organikoak, abenduaren 9koak (LOMCE), aldatu egin du maiatzaren 3ko 2/2006 (LOE) eta 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa (LOMLOE).

Nork du ikasleen datuetarako sarbidea?

Probaren eta testuinguruari buruzko galdera-sortaren erantzunak anonimo bihurtuko dira eta kode baten bidez identifikatuko dira. Datu pertsonalak ezin dira inorekin lotu. Informazio guztia modu anonimoan artxibatu eta prozesatzen da, eta anonimotua gordetzeko beharrezkoak diren neurri tekniko eta antolakuntzakoak dituzten prozesadore batek eta ftp zerbitzari konfidentzial batek babesten dute. Ez irakasleek, ez ikastetxeetako zuzendaritzek, ez publiko orokorrak ezin dute datu pertsonalik eskuratu. Prozesu hori egiteko, ELGAK enkargatutako erakundeak hauek dira: Educational Testing Service (ETS), ACT eta Westat, Estatu Batuetan, eta ACER, Australian.

Nola babesten da ikasleen pribatutasuna?

Informazio guztia segurtasunez eta konfidentziasunez tratatzen da, PISA azterlanaren estandar teknikoaren arabera. PISA-n parte hartzen duten erakunde eta enpresa guztiek dagozkien konfidentziasun-hitzarmenak sinatu dituzte, azterketak eskatzen dituenak. Datu-baseek, nazioarteko edo estatuko txostenek eta ikerketa azterlanek **ez** dute uzten datu indibidualik edo informazio pertsonalik identifikatzen.

Azterketan parte hartzen duten pertsonak beren eskubideak² erabil ditzakete INEErekin, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioarekin, PISAren Zentro Nazional gisa, eta ELGA, [Data Protection Officer](#) edo [Data Protection Commissioner](#)-en erakunde arduradunekin.

Informazio gehiago:

Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI)

c/ Asturias 9 3º. 48015 Bilbao.

<https://isei-ivei.hezkuntza.net/eu/isei-ivei>

Hezkuntza Ebaluaziorako Institutu Nazionala (INEE)

Hezkuntza eta Lanbide Heziketaren Ministerioa

Paseo del Prado, 28. 4ª planta. 28014 Madril.

<https://www.educacionyfp.gob.es/inee/>

² Datuak babesteari buruzko EBko Araudi Orokorrean 15-20 artikulua eta datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 13-17 artikulua